

TAILERRAK EREMU FUNTZIONALETAN: GERNIKA-MARKINA (Gernika-Lumo) 2016/06/22

Kokalekua: Astra (Gernika-Lumo)

Iraupena: 2 ordu eta 30 minutu

Parte hartzaileak

Izena	Udalerria	Elkarte/Erakunde/... /
Jakinda Gabikagojeaskoa Garro	Lekeitio	
Javier Landaluce	Sukarrieta	
Madai Urrutia	Ibarrangelu	
Kepa Intxausti	Sukarrieta	
Nagore Guerra	Gernika	
Iratxe Arriola	Ea	
Iñaki Biteri	Sukarrieta	
Erik Urionabarrenetxea	Gernika-Lumo	
Itziar Amezaga	Errigoiti	
Rafael Ensunza	Gernika	Gernika-Lumoko Udala Ingurumen teknikaria
Irantzu Duro	Bermeo	
Jose Ramon Bilbao	Gernika	Gernika-Lumo, EH Bildu udal taldea

Izena	Udalerrria	Elkarte/Erakunde/... /
Aintzane Arrien	Errigoiti	
Asun Barayazarra	Gernika-Lumo	

Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

Izena	Kargua
Izaskun Iriarte Irureta	Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordea
Jesús M ^a Erquicia Olaciregui	Lurralde Antolakuntza eta Plangintza Zerbitzuko arduraduna

Asistentzia teknikoa

Izena	Enpresa
Jon Agirre Such	Paisaje Transversal
Ana Izquierdo Lejardi	Inguru
Ainhoa Lopez Eiguren	Inguru

Aurkezpena

Saioa burutuko den gelara iritsi ahala, parte hartzaileei, erregistro orria beraien datuekin betetzeko eskatzen zaie.

Izaskun Iriarte Iruretak, Eusko Jaurlaritzako Ordezkariak eta asistentzia teknikoa aurkeztu ditu eta parte hartzaileei bertaratzea eskertu die. Horrez gain, LAGen berrikuspenak 3 urteko iraupena izango duela adierazi du eta administrazio izapidearen mugarri nagusiak (hasiera, aurrekaria, hasierako onarpena eta behin betiko onarpena) hurrengo hiru Euskal Hiria Kongresuekin, urtero azaroan ospatzen denarekin, bat eginaraziko direla azaldu du. Parte hartze prozesuak bi esparru izango ditu, parte hartze soziala eta instituzionala. Prozesu hau, 2015eko azaroan hasi zen. Orditik, erakunde mailako parte hartzea eta on-line bitartezko gizartearena burutu dira. Aurrez aurreko gizarte-partte hartzea 2016ko martxo eta azaro bitartean garatuko da (tailerren egutegia erakutsi du), hau da, 2016ko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztuko den LAGen berrikuspenaren aurrerapen dokumentua baino lehen.

Tailerrerako proposatutako lan-lerroak ondorengoak izan dira:

1. LAGak eta beraien ondorioak azaldu
2. Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu
3. Tailerraren emaitzak

LAGak eta beraien ondorioak azaldu

1997an onartutako Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko legeak Euskal Herriko lurralde antolakuntzaren marko juridikoaren oinarria ezartzen du eta lurralde antolakuntzarako bitartekoak definitzen ditu. Horrela, Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) lurralde antolakuntzarako erreferentzia markoa ezartzen dute. Bukatzeko, LAGek lurraldean eta hiri antolakuntzan dituzten ondorioak azaldu ditu Jonek.

Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu.

Landuko diren 5 gai nagusien azalpenak eman ditu Jonek, baita azpigaien edo paneletan hauetariko bakoitzarentzat adierazten diren azpigalderen zertzelada batzuk ere.

- Paisaia, ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea
 - o Paisaia
 - o Ingurune fisikoaren antolamendua
 - o Klima aldaketa
 - o Babestutako Naturguneak
 - o Korredore ekologikoak
 - o Azpiegitura berde integratua
- Landa-ingurunea
 - o Landa-inguruneko garapen ekonomikoa
 - o Landa-inguruneko antolamendu fisikoa
- Hirigunea
 - o Birgaitzea eta Hiri birsorkuntza
 - o Jarduera ekonomikoa eta lurraldea
 - o Hiriz hazkundera
 - o Metropolialdeak eta transformazio ardatzak
 - o Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak
 - o Mugako herriak

- Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak
 - o Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
 - o Bide-mugikortasuna
 - o Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna
 - o Talde mugikortasun multimodala
 - o Eredu logistikoa
 - o Ura
 - o Energia
- Zeharkako alderdiak
 - o Genero ikuspegia, osasuna, euskara
 - o Lurraldeen arteko harremana
 - o Parte hartzea eta Gobernantza

Tailerrean zehar garatuko diren lan-dinamikak azaldu ditu Anak:

- Talde-lana (75 minutu): Parte hartzaileak taldeka banatuko dira. Talde guztiek gai guztiak (Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea; Landa-ingurunea; Hirigunea; Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak; Gobernantza) landuko dituzte. Gai bakoitza azpigai ezberdinetan banatuta dago. Beraz, talde bakoitzak, lehenengo gai bat aukeratu beharko du, gero gai horretako bi azpigai eta ondoren, proposatzen den galderari erantzuten saiatu beharko da. Landutako ideiak post it-etan idatzi beharko dira (post it bat, ideia bat). Bi azpigai hauek landu ostean, hurrengo gaira pasako dira, zeinetan beste bi azpigai aukeratu eta landu beharko dituzten eta horrela hurrenez hurren.
- Plenarioa (45 minutu). Talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratuko du eta bera arduratuko da, gainerako taldeei bere taldean landutako ideiak azaltzeaz. Lehenengo taldeak lehenengo gairako landu dituen gaiak azalduko ditu. Ondoren, bigarren taldeak bere ideiak gehitu ditu eta horrela gainerakoak, talde guztiek, gai horri dagokion beren ideiak azaldu arte. Horren ostean bigarren gaira pasako gara. Talde guztiak gai bat azaltzen lehenak izan daitezen, bigarren taldea hasiko da bigarren gaiko ideiak azaltzen, hirugarrena hirugarren gaikoak...

Parte hartzaileek ondorengo ekarpenak planteatu dituzte prozesuaren inguruan:

- Gernika-Markina eremu funtzionaleko LPPa onartu berri dago, nola eragingo du honetan LAGen berrikuspenak? Izan ere LPPa aurreko LAGetan oinarrituta egin da eta ondorioz, beharrezkotzat jotzen da, behin LAGak eguneratutzen direnean, LPPa hauetara egokitzea. Gauza bera egin beharko litzateke gainerako LPPekin eta baita LPS, PRUG eta beste lurralde antolakuntzako instrumentuekin.
- Koherentzia eta koordinazio interadministratiboa falta da, 1990eko lurzoruen legean eta lurralde plangintzan ezartzen dena aurrera eramateko.

- Lurralde antolakuntza erreal bat aurrera eraman ahal izateko, LAGak lotesleak izan beharko lirateke maila altuago batean, ez gaur egun bezala. Gainera, indartu egin beharko lirateke.
- Oinarrizko dokumentuan ez da lurralde antolakuntza eredu kolokan jartzen. LAGak berrikusi arren, aurreko LAGen eredu ez da kolokan jartzen eta hau berrikuspenarekin hasi aurretik egin beharko litzateke.

Tailerraren emaitzak.

Ondoren, tailerraren emaitzak azaltzen dira:

1. Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea:

1.1. Paisaia

- 1.1.1..Eredu sozioekonomikoaren, lurraldean gauzatzen diren jarduera ekonomikoen, emaitza da paisaia. Zer egiten dugunaren ondorioa da.
- 1.1.2.Ikuspuntu integratu/holistiko eta jasangarri batetik arautu lurraldearen erabilera. Lurzoruari ematen zaion erabilerak beste efektu sekundario batzuk izango ditu eta hori kontutan izan behar da erabilerak arautzeko orduan.
- 1.1.3.Lehen sektorea bultzatu eredu dibertsifikatu eta jasangarri bati jarraituz.
- 1.1.4.Lurzoru urbanizaezinentzat plan espezifiko bat egin beharko zen, benetako babesarekin.
- 1.1.5. “Nekazaritzako lurren erreserba” bat sortu, balio hau bermatzeko

1.2. Babestutako naturguneak

- 1.2.1.Urdaibai: erreserbaren parte diren erakundeen artean ez dago koordinaziorik
- 1.2.2.Nahaspila legislatiboa, koordinazio falta: Aldundia, EJ
- 1.2.3.Turismoari garrantzia larregi ematen zaio babestutako guneetan, beste jarduerak alde batera utziz.
- 1.2.4.Paisaia postal baten moduan babesten da, kanpotik datorrenari erakusteko
- 1.2.5.Trenbide garbiketa. Biosfera barnean egonda, paduraren ondotik doan trenbidearen inguruan dauden 3 metroak herbizidarekin garbitu dira. Kontraesana zentsu guztietan. Jarduera honetan mota horretako ekintzak onartzen dira, baina beste jarduera batzuetan ez.

1.3. Ingurune fisikoaren antolamendua

- 1.3.1.Norbere burua kontzientziatzea baino hoberik ez da. Kultura falta dago. Lurraldearen planifikazioan ez dugu geuk eskua hartzen

1.4. Korredore ekologikoak

- 1.4.1.Asmoen adierazpen asko egoten dira dira, baina gero lurraldea zatikatzen duten azpiegiturak eraikitzen dira: Autzaganeko tunelak (barrera animalientzat), AHT...

2. Landa-ingurunea

2.1. Landa-inguruneko garapen ekonomikoa

- 2.1.1.1. sektorea balioan jarri. Baserritarrek egin duten lanaz jabetu behar gara, ez bakarrik produkzioan, baita kulturaren mantentzean, paisaiaren kudeaketan... Behar duten lekua eman behar zaie.
- 2.1.2. Patronatuak ez du ezer egiten, zer da Biosfera erreserba? Titulu bat da? Non dago PAESA?
- 2.1.3. Hurbileko kontsumoa eta ekoizpena sustatu, bultzatu behar da.
- 2.1.4. Zirkulu txikiak eta itxiak bultzatu, produkzioa eta kontsumoa lotuz. Ekonomia lokala bultzatu behar da, eskualdea oinarri duen ekonomia, baina herritik eskualdera pasatuz.
- 2.1.5. Nekazaritza dibertsifikatua, estentsiboa eta ingurumena zaintzen duena bultzatu behar da. Gaur egun erabiltzen diren monokultibo intentsiboak ez dira lehentasun izan behar.
- 2.1.6. Esperientzia pilotuak garatu eta bultzatu behar dira (batez ere erreserba bat den heienean).
 - Nekazaritza-abeltzaintza (Kataluniako parke agrarioak)
 - Sektore forestalean, erabilera mistoa bultzatu (Polonia etab)
- 2.1.7. Turismoa berez ez da ona eta nekazaritza berez ez da txarra, nekazaritza eta turismo ereduak definitu behar dira. Babes guneetan ere nekazaritza jarduerak garatzea posible da, eredu jasangarriak garatuz.

2.2. Landa-inguruneko antolamendu fisikoa

- 2.2.1. Lur zentimetro bakoitzak milaka urteko lana dauka gordeta
- 2.2.2. Jasangarritasuna bultzatu behar da, lurra bakarra delako eta hurrengoentzako zaindu beharra dagoelako.
- 2.2.3. Benetan babestu behar da, "nekazaritza lurren erreserba" sortu
- 2.2.4. Lurrak gestionatu behar dira, adibidez lur bankuen bitartez. Aldundiak baditu, baina ez du horretan sinesten. Egi bihurtu behar da nekazaritza lurren eskuragarritasuna.

3. Hirigunea.

3.1. Birgaitzea eta birsorkuntza

- 3.1.1. Ze instrumentu operatibo daude herriguneak trinkotzeko? Gaur egun herriguneak, batez ere hirietan, atzerritarrentzat "show-gune" dira eta herritarrak periferiarantz joan behar dira. Ez da trinkotze politikarik ikusten.
- 3.1.2. Dagoeneko artifizializatuta dauden lurrak berrerabiltzeko/berreskuratzeke neurriak jarri behar dira
- 3.1.3. Etxe hutsak egonik, zergatik egiten dira gehiago?
- 3.1.4. Eraikitako ondarea babestu behar da.
- 3.1.5. Izartu programa: esperientzia interesantea

3.2. Jarduera ekonomikoa eta lurraldea

3.2.1. Azpiegiturak egiten dira, bertoko beharrianak aztertu barik. Adreiluaren interesetan oinarritzen dira

3.2.2. Industriaguneak erdi-hutsik daude eta beste leku batzuetan berriak egin nahi dituzte. Bisio orokorra falta da.

3.2.3. Azpiegiturak, Gernikan duen instalazioen %60a hutsik daude

3.2.4. Erabileren nahastura (mixtura de usos) bultzatu behar da.

3.2.5. Aktibitate ekonomikoa herri barruan ez bada txertatzen, kondenuatu dago. Adibidez Lurgorri Gernikan.

3.2.6. Desaklopea dago aktibitatearen eta lurrraren artean. Gaur egun biztanleriaren %70 kanpora doa lanera. Ez gara gure inguruko baliabide naturalez bizi. Harrantz egin behar dugu, baina ez da lan larregi ikusten.

3.2.7. Energia berriztagarriak lantzeko (sektore ekonomiko gisa) aukera egon da Gernikan, baina planifikazio hutsean geratu da

3.2.8. Gernika: definizio falta dago. Zer nahi dugu izan? Zer bultzatu nahi dugu? Industria, turismoa....? Etorkizunerako apustua definitu behar da.

3.3. Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak

3.3.1. Zein da turismorako daukagun harrera-gaitasuna?

3.3.2. Turismo eredua eskualdean dauden baliabideetara egokitu behar da.

3.3.3. Turismoan egiten diren ekintzak eskualdeko baliabideak (natura, nekazaritza, kultura, nortasuna...) indartzeko eta balioan jartzeko diseinatu beharko lirakeke. Zein turista mota erakarri nahi den pentsatu behar da eta horren arabera planifikatu.

3.3.4. Camping-ak falta dira Busturialdean

3.4. Hiri hazkundera / Egoitza kuantifikazioa

3.4.1. Hirigune trinkoa sustatu behar da, baina Busturialdeko politika kontra doa. Gernika hutsik dagoen bitartean, Muxikan, azpiegitura erraldoiak planteatzen dira. Adreiluaren interesak

3.5. Mugako herriak

3.5.1. Gertu dauden herriek elkarrekin egin beharko lukete plangintza. Mugako herriek azpiegiturak elkarbanatu beharko lituzkete.

4. Mugikortasun jasagarria eta azpiegiturak

4.1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna

4.1.1. Diseinatzen diren ibilbideak aisialdirako barik, egunerokotasuneko beharrak betetzeko eginda egotea

4.1.2. Oinezko eta bizikletakoentzat bide alternatiboak aurreikusi, beraien segurtasunaren alde egiteko

- 4.2. Talde mugikortasun multimodala
 - 4.2.1. Dena dago Bilbora zuzenduta, zergatik 15 minuturo Bilbora? Durangora? Eskualdeko mugikortasuna ez da kontutan izaten eta ondorioz eskualdea zatikatu/txikitu egiten da
 - 4.2.2. Busturialdeak edo Lea Artibaik duten autobus zerbitzua oso ezberdina da, Bilborako aukera gehiago Busturialdetik eta Donostiarako Lea Artibaitik.
 - 4.2.3. Errigoitira egunean 3 autobus joaten dira eta gainera, ordutegi ez logikoetan (institutura joateko...). Ondorioz, ia hutsik joaten dira. Erabiltzaileetan ez da larregi pentsatu.
- 4.3. Bide-mugikortasuna
 - 4.3.1. Gaur egungo azpiegiturak modernizatu eta egokitu egin behar dira, berriak egin baino lehen (errepideak, AHT...), dauden eremu naturalak ez okupatzeko.
 - 4.3.2. Autzaganeko tunelak egiteak ez dauka abantaila askorik. Inon egitekotan, tunelak Sollubena egin beharko lirateke.
- 4.4. Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna
 - 4.4.1. Gernikako trena lurperatzea beharrezkoa da
 - 4.4.2. Trena ez lurperatzeak, saihebidetara goitik egitea ekarri du, animalientzat barrera sortuz eta Gernikako akuiferoa kutsatzearen arrazoi bat da.
 - 4.4.3. Trena bultzatu behar da, Autzaganeko tunelak baino garrantzitsuagoa da.
- 4.5. Ura
 - 4.5.1. Baso landaketak bertako espeziekin egin behar dira, uholdeak saihesteko.
 - 4.5.2. Ur kudeaketa, bilketa eta hornidura ahalik eta hurbilekoenak izan behar dira, besteak beste energia gutxiago gastatzeko.
 - 4.5.3. Ura eskualdetik kudeatu behar da, menpekotasun hidriko eta pribatizaziotik at. Busturialdean, gure baliabide hidrikoak kudeatzen ditugu. Guk zaindu eta kudeatzearen garrantzia.
5. Zeharkako alderdiak: Generoa, osasuna, euskara, lurraldeen arteko harremana eta parte hartzea
 - 5.1. Genero ikuspegia, Osasuna, Euskara
 - 5.1.1. Zelan dinamizatu euskara herrietan? Euskararen arnaguneak planeamenduan kontutan ez hartzeak, eragin negatiboa dauka euskararen egoeran.
 - 5.1.2. Auzoetako edo herri txikietako eskolak berreskuratu, komunitatea sortzeak, euskara eta berdintasunaren alde egingo du.
 - 5.2. Parte hartzea eta Gobernantza
 - 5.2.1. Parte hartze eskaileran mailarik altuenera heldu behar da, ko-kudeaketara

5.2.2. Hau ez da benetako parte hartzea, horretarako ez luke abiapunturik, oinarritzko dokumenturik, egon behar. Dokumentua prozesuko ondorioetatik eratu beharko litzateke.

5.2.3. LAGak presidentetzatik eratorri beharko lirateke eta lotesleak izan beharko lirateke puntu batzuetan eta ez gutxi batzuetan, ereduari buruz hitz egiten ari bagara behintzat.

5.2.4. Gure ekarpenekin zer gertatzen da? Nola jasoko dira? Noraino izango dira lotesleak?

5.2.5. LAGen betetze maila neurtzeko, jarraipen batzordea egin beharko litzateke, herri parte hartzearekin eta adierazle zehatz batzuekin.

5.2.6. Adituak eta edozein gaietan ekintzaileak direnen arteko eztabaida publikoa eragin behar dira.

5.2.7. Kalitatezko informazioa eta kantitate egokian eman beharko litzateke. Askotan informazio larregi ematen da.

5.3. Klima aldaketa

5.3.1. Gizartearen kontzientziazioa bultzatu behar da.

5.3.2. Egiten diren ikerketen dibulgazioa egin behar da.